

Elgoibar - 1280 - Lehibe
XX. urtea - 2023-03-24

TOKIKOM

BARREN



PITXIKIKO
opari-denda



Poesiaren edertasuna

Maite Lopez Las Heras



**Aukera paregabea
sukalderako
nahiz jangelarako
mahai zabalgarri
eta aulki tolesgarri
eta pilagarrietan.**



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Osasun gida



RPS233/13

943 366 377

San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansoa

GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

RPS 203/16

Tarbio Etebarria, 22
Elbar

677 551 850



fisio&más

Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea



Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 953 698
www.fisio-mas.com

RPS 177/12

RPS 271/12

ainhoa
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar

943 531 953
669 565 745

RPS 183/12

Uzuri
optika audio

Elgoibar
943 740 359

Deba
943 192 192

**leku
eder**
horts klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo

Alta Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar

943 530 053

federópticos

ikus

RPS 65/07

San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734



**Jaso nahiko al zenituzke
ELGOIBARKO eta MENDAROKO
berriak zure e-postan?**

Harpidetza nola egin behar duzun jakiteko,
sartu barren.eus-en eta
egin klik 'Nor Garen' atalean.
Bertan topatuko dituzu azalpen guztiak.



EXPRESS ESKAINTZAK!

**SAMSUNG RB38T603DSA/EF
HOZKAILU KONBINATUA**



719 €
(prezioa unitateko)



- No frost
- 390 litroko edukiera
- 203 zm-ko altuera
- Inox premium
- Spacemax teknologia
- Optimal fresh + kaxoia

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Maialen Sanchez

Idazlea

'Chestita baba Marta!'



*"Bulgariako folklorea
ohitura honek ongietorria
ematen dio udaberriari"*

Urteak dira lehen aldiz kondaira honen berri eduki nuela lagun on bati esker. Bulgariar jatorriko ohitura eder bat da, eta oraingo honetan hari buruz hitz egingo dizuet, Baba Marta ospakizun paganoari buruz, oso interesgarria eta polita iruditzen baitzait.

Martxoaren 1ean esaldi bat errepikatzen da behin eta berriro Bulgariako kaleetan zehar, *Chestita baba Marta!* (euskaraz, "Zorionak, amona Martxo" bezala itzuli dezakegu) eta zergatik amona Martxo? Baba Marta eguraldiaren jaun eta jabea dela dio kondairak. Bulgariako folklorea ohitura horrek ongietorria ematen dio udaberri meteorologikoari, negu luze eta gogor baten ostean. Baba Marta pozik edukitzeko, Martenitsas izeneko eskumuturrekoak eta kotoizko apaingarriak, zuriak eta gorriak, trukatu behar dituzte senitartekoez eta lagunak, zortea eta osasuna opatzeko elkarri. Apaingarrien kolorea ez da kasualitatea, kondairak dioenez, Amona Martak jantzen zituen jantziak kolore horretakoak ziren, eta hura ohoratzeko eta udaberria indarrez iritsi dadin kolore horietakoak izan behar dira apaingarriak. Tradizioa betetzeko, eskumuturreko edo apaingarri horiek gurekin eraman behar dira martxo osoan, harik eta lehenengo zikoina edo kimuak atera zaizkion zuhaitza ikusi arte. Orduan, horrelako zuhaitz baten adarretik zintzilikatu behar dira, eta modu horretan ziurtatuko duzu urte ona izango duzula eta udaberriaren epeltasunaren zain hunkituta zaudela.

Hori guztiagatik, naturarekin bat egiteko aukera polita dela uste dut eta polita litzateke ohitura hau bereganatzen badugu. Chestita Baba Marta denoi!



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 655 658



Autopistako zarata gutxitzeko jarri zituzten panelek ez dute beren funtzioa betetzen:

"Arregitorreko etxebizitzek hamar solairu dituzte, eta zarata gutxitzeko panelek bigarren solairura arte betetzen dute beren funtzioa. Orain, Pista Arrosa deitzen dioten bidean zuhaitzak landatu dituzte, eta pentsatzen dugu horiek hazten direnean zarata gutxiago izango dugula, baina panelaren luzeeraren erdira arte bakarrik sartu dituzte zuhaitzak. Eskertuko genuke luzeera osoan jartzea. Dena dela, obrako zikinkeria guztia bertan laga dute".



Autobus geltokietan informazio panelak falta dira: "Autobus geltokietan ordutegiei buruzko informazioa falta da. Aspaldiko eskaera da hau, eta arduradunek esan zuten jarriko zituztela, baina oraindik ere zain gaude. Autobusaren zain gaudela ibiltzen da jendea sakelakoan ordutegiak kontsultatzen, baina denok ez gara horren abila". Elgoibarko Udaletik jakinarazi dute hasita daudela lanean eta ahal bezain laster jarriko dituztela ordutegien panelak.



Txalo bero bat musika eskolako dantza irakasle eta ikasleei:

"Joan zen astean Inazio Bereziartua musika eskolako dantza ikasleen jaialdia izan genuen, eta benetan polita izan zen. Txalo bero bat arduradunentzat, antolakuntzan egindako lanagatik, eta baita ikasleei ere, primeran egin zutelako. Segi horrela".



Eskerrik asko Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei Moru mendian zuhaitzak landatu dituztelako.

"Gure herriko landa ingurunea bizirik mantendu eta indartzea oso garrantzitsua da, eta auzolanean bada, askoz hobea. Txalo bat Elgoibarko Udalari eta LHko herriko bikastetxei".



'Tren geltokia bai' plataforma sortu dute Altzolan, tren geltokia kendu ez dezatela eskatzeko

Altzolako hainbat bizilagunek *Tren geltokia bai* plataforma sortu berri dute auzoko tren geltokiari eusteko, izan ere. Izan ere, trenbidearen sahiesbidea egiteko obrarekin batera, Eusko Jaurlaritzak Altzolako tren geltokia kentzeko asmoa duela jakin dute, Azpiegitura eta Garraio Saileko zuzendariarekin trukaturako mezuen bidez. Plataformako kideek azaldu dutenez, urtarilaren 25eko Euskal Herriko boletinean azaldu zen oharraren bidez izan zuten sahiesbidearen proiektuaren berri, eta txostenean ez zen Altzolako geltoki berriari buruzko informaziorik ageri. Kezka sortu zitzaizen, eta geltoki berria egingo ez zela ere jartzen ez zuen arren, gaiari heltzea erabaki zuten.

Aurrekariak

Plataformako kideek azaldu dutenaren arabera, 2013an hasi zuen Euskal Trenbide Sareak Elgoibarko sahiesbidea egiteko proiektuaren idazketa prozesua, eta informe hartan Altzolako apeaderoa kendu eta berria egitea zegoen jasota. Era berean esan dute iazko uztailean erabaki hori berretsi zuela Eusko Jaurlaritzak, baina handik aurrera informazio "nahasia" jasotzen hasi zirela. "Altzolako sahiesbideari buruzko informazioa irtten zen komunikabideetan, baina inon ere ez zuten aipatzen Altzolako geltoki berria". Egoera zalantzati horren aurrean Eusko Jaurlaritzako Azpiegitura eta Garraio Saileko zuzendari Dolores De Juan De Miguelekin jarri ziren harremanetan, galdetzeko ea beraiek onartutako Altzolako geltoki berriari esker Altzolako linea eta geldialdi guztiak berreskuratuko zituzten. "Kontrakorik jartzen ez zuenez, oraindik bageneukan esperantza, eta zerbituzari buruz galdegin genion". Abenduaren 15ean jaso zuten Jaurlaritzatik erantzuna posta elektronikoz: "Linea eta geldiguneak ez genituela berreskuratuko erantzun ziguten, eta gainera, azken proiektuan estazio berria egitea ere ez zela jasotzen". Arrazioen artean aipatu zieten Altzolako geltokia egunean bi lagunek erabiltzen dutela batez beste: "Argi dago une hartan De Juan De Miguel andreak ez zekiela 32 lineetatik zortzi bakarrik



gelditzen direla Altzolan, eta ziur ez zekiela, ezta ere, geltokirako daukagun bidea nolakoa den". Altzolako bizilagunen eta Jaurlaritzaren arteko galdera-erantzun trukaketa etengabekoa izan da orduetik, eta martxoaren 10ean eratu zuten Altzolako tren geltokia defenditzeko plataforma.

Udalaren erantzuna

Elgoibarko Udalarekin bilera eskatu dute plataforma aurkezteko, eta baita erabaki hori atzera botatzeko presioa egin dezala ere Jaurlaritzan. Elgoibarko Udaleko arduradunek esan dute Altzolako bizilagunekin harremanetan egon direla orain arte, eta aurrerantzean ere berdin jarraituko dutela. Plataformako kideen bilera eskaerari ere erantzungo diotela esan dute, eta bilduko direla beraiekin.

Proiektuari dagokionez, Udaletik esan dute ez dela inon aipatzen Altzolako tren geltokia egingo den edo ez, baina Udalak alegazio bat egina daukala, esanez ondo legokeela sahiesbidearen proiektua aprobetxatzea Altzolan geltoki berria egiteko. Dena dela, Udaleko arduradunek baieztatu dute Altzolako bizilagunentzako garraio zerbitzua bermatuko dutela: "Altzolatarrek autobusa erabiltzen dute gehienbat, eta gaur egun dagoen autobus zerbitzuarekin edo Udalbus zerbitzua hobetuta, Altzolarako zerbitzua bermatuko dugu".

Sigma auzoa oneratzeko proiektua aurkeztu dute

Hurrengo hiru urteetan Sigma (Olasogain) auzoa oneratzeko eta "modernizatzen" proiektuaren inguruko xehetasunak aurkeztu dituzte Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren sailburuorde den Miguel de los Toyosek, Ane Beitia Elgoibarko alkateak eta Iosu Arraiz Elgoibarko Udaleko hirigintza arduradunak.

Auzoko 72 etxetan hobekuntzak egitea aurreikusten dute: energia berriztagarriak txertatuko dituzte, irisgarritasun-ekintzak egingo dituzte, besteak beste, kanpogogailuak eta balkoiak eraikiz edo handituz. Inguruneari dagokionez, argiteria publikoan LED argiak jarriko dituzte, ur-hodiak berrituko



dituzte ihesak murrizteko, CO2 hustubide gisa funtzionatzen duten landare-elementuak gehituko dituzte eta parkeak berritu, baita telekomunikazio-sareak ere.

'Bizilabe' proiektuko gazteek Berkoa Machine Tools enpresa bisitatu dute



Bizilabe proiektuan parte hartzen ari diren LH eta DBHko 44 ikaslek Berkoa enpresa bisitatu zuten joan zen astean, industriaren errealitatea bertatik bertara ezagutzeko. Elgoibarko Udalak

eta Elhuyarrek bultzatzen dute *Bizilabe* eta herriko gazteen artean zientzia eta teknologiarekiko, ekintzailtzarekiko eta sormenarekiko interesa eta motibazioa sustatzea du helburu.

Aparkaleku kopurua handitu dute Toletxe kalean



Toletxe kaleko 27-31 zenbakien artean bidea margotu dute ibilgailuen zirkulazioa hobetzeko, eta lan horiek aprobetxatu dituzte ingurune horretako aparkamentu kopurua handitzeko. Aparkaleku zeharren noranzkoa lerroko aparkalekuengatik aldatu dute, erreiaren zabalera handitzeko eta kaleko zirkulazioa hobetzeko. Aldaketa horri esker, aparkalekuak sortu ahal izan dituzte bidearen eskuinaldean, eta, hiru plaza gehiago atera dituzte.

Mendaroko zubia berritzeko proiektua apirilean lizitatu eta lanak irailean hastea aurreikusten dute

Oihiko azkerketa teknikoetan zubian atzeman dituzten patologiak konpontzeko berritu asmo dute Mendaroko sarbideko zubia eta aurreratu dute obrak 2.196.195,08 euroko aurrekontua izango duela, BEZ barne. Joan zen urriaren 4an aurreratu zuten albistea Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Udalak eta eguaztenean beste agerraldi bat egin zuten Mendaron Aitzane Oiarbide Bide Azpiegituretako diputatuak eta Iñaki Arregi alkateak behin betiko proiektuaren xehetasunak emateko. Iaz esan zuten urtarrilean lizitaziora aurkeztuko zutela eta maiatzean hasiko zituztela obrak, baina eguazteneko agerraldian jakinarazi zuten apirilean aterako dutela lizitaziora zubia berritzeko eraikuntza-proiektua eta aurreikusten dutela irailean obrak hasteko moduan izango direla. Obra bukatzeko, ondo bidean, zortzi bat hilabete beharko dituztela zehaztu zuen Oiarbidek eta tarte horretan pazientzia izateko eskatu zien herritarrei, lanak trafiko irekiarekin egin beharko dituztelako. Obrak Mendaro Ospitalearekin "komunikatuta eta koordinatuta" egingo dituzte.

Oiarbidek nabarmendu zuen atzeratu zitekeen obra zela, zubiak ez duelako egiturazko kalterik, baina ohiko ikuskapenetan hainbat pitzadura eta hezetasunak eragindako kalte atzeman zituztela, eta herrirako sarbide bakarra izanda, erabaki dutela inbertsioa egitea. 1976koa da zubia, 55 metro luze da eta Deba ibaiaren, ibai ertzeko pasealekuaren eta trenbidearen gainean eraikita dago, eta horrek zaildu egiten du bertan egin nahi den edozer. Hiru helburu ditu obrak: egituraren atzeman dituzten arazoak konpontzea, euste-



sistema sendotzea, "gaur egungo legediaren arabera ez dituelako gutxienekoak betetzen", eta zerbitzu guztiak ordenatzea (telefonoa-sarea, ur-hoditeria...). Euste-sistema sendotzeko zubia zabalduko dute, horretarako 50 metro inguruko corten altzairuzko metalezko egitura bat jarrita. Egitura horrek sostengu propioa izango du, hau da ez du kargarik suposatuko egungo zubiarentzat; "are, karga arinduko zaio". Gaur, 9,9 metrokoa da plataforma eta 1,5 bi espaloi ditu ertzetan, oinezkoentzat. Gero, 13,6 metro zabal izango da plataforma eta bi metrokoak izango dira espaloiak. Espaloia eta kaltzada bereizteko eta segurtasuna hobetzeko babesak jarriko dituzte.

Agerraldi berean, zehaztu zuten Mendaroko sarbide berria urrirako izango dutela idatzita. Bi obrak historikotzat jo ditu Arregi alkateak eta Aldundiarekin elkarlanean jarraitzeko konpromisoa adierazi zuen.

Elgoibarren garbantzuko pedrosillanoa batuko dute eta Mendaron hodi itxurako makarroiak, Zaporeak egitasmoaren barruan

Greziako kanpalekuetarako elikagaiak batzen ari dira Debabarrenean. Elgoibarren Pedrosillano garbantzuko batuko dituzte eta, Mendaron, hodi itxurako makarroiak. Elgoibarren Merkatu plazan eta ikastetxeetan jasoko dituzte, eta Mendaron, eskolan, udaletxean eta jubilatuetan. Bestalde, Zaporeak elkarteari laguntzeko bazkideak behar dituzte. Bazkide

egiteko bi aukera daude: banku transferentzia bitartez, aldizkako transferentzia egiteko agindua emanda (ES14 2095 5092 00 9115250322 edo ES71 3035 0103 88 1030035880) edo, bestela, www.zaporeak.eus webgunearen bitartez. Honi lotuta, bestale, Tupper Solidarioa ekimena egingo dute bihar, Ermuan. 14:00etatik 15:00etara, Orbe Kardenalaren plazan.

Merkatu Plaza dagoen lekuan eraiki asmo du Osakidetzak Elgoibarko osasun zentro berria

Jaurilaritzako osasun agintariek eta Elgoibarko Udaleko arduradunek anbulatorio berria egiteko sinatu duten akordioaren berri eman zuten eguaztenean. Gotzone Sagardui Osasun Sailburua etorri zen proiektuaren berri ematera, eta Elgoibarko Udaletik Ane Beitia alkateak, Iosu Arraiz Hirigintza zinegotziak eta Maialen Gurrutxaga Euskara eta Gazteria zinegotzi eta EAJren alkategaiak parte hartu zuten agerraldian. Azaldu zuten, egungo merkatu plaza dagoen lekuan eraiki nahi dute anbulatorio berria eta datorren legealdian hasiko dira lanean.

Egungo anbulatorioak sarbide zaila duela eta 18.000 biztanleri (Elgoibar, Soraluze, Mendaro...) zerbitzua emateko txiki geratu dela esan zuten, eta horregatik erabaki dutela osasun zentro berria eraikitzea merkatu plaza dagoen lekuan. Horren harira esan zuten eraikina behera bota eta erabat berrituko dutela eta zentro berriak 2.264 metro koadroko azalera eraikia izango duela, sei solairutan banatuta (sotoa, beheko solairua + lau solairu), gaur egungoaren bikoitza. Espazioan irabazteaz gain, zerbitzuak ere indartuko dituztela adierazi zuen Sagardui: medikuntza orokorreko zortzi kontsulta, egoiliarrentzako bi kontsulta, erizaintzako zortzi kontsulta, medikuntza pediatrikoko bi kontsulta, erizaintza pediatrikoko bi kontsulta, talde-jardueretarako gela bat, odola ateratzeko gela bat, fisioterapia-gela bat, kirurgia txikiko gela bat eta emakumeentzako gune bat, besteak beste. Osakidetzak 117 milioi euro ditu 2023ko aurrekontuan, instalazioen eta ekipamenduen modernizazioan inbertitzeko. Anbulatorioaren ordutegiari eta larrialdi zerbitzuei buruz galdetuta, Sagardui esan zuen Elgoibarko



biztanleak "ondo artatuta" daudela, Elgoibarko anbulatorioa ez delako modu indibidualean hartu behar, baizik eta inguruko herrietako zerbitzuekin uztartuta. Horrez gain, azpimarratu zuen Elgoibarren ez dela murrizketarik egin, baizik eta egokitzapenak zerbitzuan, Elgoibarren ere Euskal Herrian eta Espainian bezala, langile falta izan dutelako zenbait unetan.

Merkatu plazaren idiosinkrasia

Anbulatorio modernoia izango dela esan zuten, baina merkatu plazaren idiosinkrasia mantenduko dutela, eremu estali berri bat sortuta inguruan eta tokia eginda ostegunetan jaisten diren baserriarrei eta herritarrentzako aisia gune bat sortuta. "Ez hori bakarrik, plaza berri bat izango da, Kultur Etxea balioan jarriz eta herria ibaira begira jarriz. Ingurune osoa eraberrituko dugu", nabarmendu zuen Iosu Arraiz Hirigintza zinegotziak. Egun Merkatu Plazan dauden saltzaileei -bi saltzaile daude orain, eta bakarra izango da ekainetik aurrera- zein elkarte eta eragileei espazio egokia eskainiko dietela ere aurreratu zuten.

Gatzato tailerra eta erronka jolasa egingo dute bihar, azken zapatuko ferian

Elgoibarko Udalak eta Debemenek antolatuta martxoko azken zapatuko feria egingo dute bihar. Goizean goizetik Elgoibarko baserrietako produktuak jarriko dituzte salgai Kalebarren plazan, eta oraingoan, Artalde artisau taldeko kideek ere jarriko dute postua. 11:00eta Urajai elkartekoek txosna zabalduko dute, eta Eusko

Label Kalitatezko txahal sahiets eta txorixo pintxoak salduko dituzte, Elgoibarko baserrietan ekoizturiko barazkiekin batera. 11:30etik aurrera, umeentzako erronka jolasa eta gatzato tailerra izango dira umeentzat, Atxutxiamaiak gidatuta. Egurditik aurrera, ganadu erakusketa egingo dute, Kalebarren plazan.

Hemen bertako zuhaitzak landatu dituzte zuhaitzaren astean

Zuhaitzaren astea ospatu dute aste honetan Elgoibarren, eta Ikastolako eta Herri Eskolako LH6ko ikasleek hemen bertako zuhaitzak landatu dituzte Morun. Gailurretik metro gutxitara landatu dituzte zuhaitzak, udal brigadako beharginen laguntzarekin. Ekimen honen helburua landa ingurunea bizirik mantentzea eta indartzea da, eta baita herriko haurrei ingurumenarekiko "kontzientzia" eta sentsibilitatea" umetatik piztea eta irakastea.



Institutuko hiru ikasle saritu dituzte Clinical Case Competition txapelketan

Espainiako 200 ikaslek hartu dute parte Nafarroako Unibertsitateak antolatzen duen Clinical Case Competition lehiaketan, 58 taldetan banatuta. Elgoibar BHI ikastetxeko Ihintza Gonzalez Moreno elgoibartarra eta Lucia Madina Arrillaga eta Janire Prieto Arribas debarrak Elgodebarrak izenarekin lehiatu ziren, eta bigarren egin zuten. Lehiakideei benetako kasu kliniko bat aurkeztu zieten, eta ikasleek gaixoen diagnostikoan asmatu eta tratamendu egokienak proposatu behar izan zituzten lehiaketan.

Ziberjazarpenaren inguruko kezka batu ditu Elgoibar Ikastolako, Martinikako eta Turkiako ikasleak



Elgoibar Ikastolako DBH3. mailako ikasleak ziberjazarpena lantzen ari dira Erasmus + proiektuan, Turkiako Istanbul Anadolu Lisesi institutuko eta Martinikako Lycee Pro Leopold Bissol institutuko ikasleekin elkarlanean. Elgoibarko hainbat ikasle abenduan izan ziren

Martinikan. Karibe itsasoan (Antillas Txikietan) dagoen uhartea den arren, Frantziako itsasosteko departamendua da Martinika. Orain, berriz, Martinikatik eta Turkiatik etorri dira ikasleak Elgoibarrera. Datorren urtean joango dira elgoibartarrak Turkiara.



“Poesia bizitza ulertzeko eta adierazteko modu bat da, berezkoa bezain ezinbestekoa”

MAITE LOPEZ LAS HERAS

Idazlea eta itzultzailea

✍️ Ainara Argoitia / 🗣️ Asier Orbea

Poesiaren Nazioarteko Egunaren harira eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako 'Edertasuna zabaldu' kanpainaren barruan, 'Poesia zeu zara' saioa ondu zuten Pitxintxukoek martitzenean, lau artista eta kulturzaleren laguntzarekin. Maite Lopez Las Heras idazle eta itzultzaileak eta Alex Roldan Bota Literak! gazteentzako idazketa klubeko ikasleak

zenbait poema errezitatu zituzten, musikariak lagun hartuta. Maddi Arrieta aritu zen biolinarekin eta Asier Artzamendi, pianoan, eta berezia izan zen han sortu zen giroa, bai eta hunkigarria ere, bereziki Lopez Las Herasek Pitxintxuri eskainitako poema errezitatu zuenean. 45 urte bete ditu Pitxintxuk eta aurki erretiroa hartzekoak dira ugazabak, Izaskun eta Mari Jose Estibaritz ahizpak. Bideoa: [barren.eus](https://www.barren.eus)

Martitzenekoa aitzakia hartuta, Maite Lopez Las Heras (Azkoitia, 1985) ekarri dugu gaur gureru. Filologia klasikoa ikasi zuen, latineko eta literaturako eskolak ematen ditu Elgoibar Ikastolan eta bost liburu ditu argitaratuak: 'Pienso, luego escribo' eta 'Poetandreak literatura greko-latindarrean. Antologia poetikoa' poesia liburuak, 'Amatu' saiakera eta 'Safo, poesia guztia' eta 'Ibilbidea' itzulpen liburuak.

Zokoratu xamar dagoen literatur generoa da poesia. Zeri zor zaio poesiaren ikusezintasun hori?

Azken boladan, poesia suspertzen ari dela hauteman dut. Hala ere, bistan denez, ez da gehien irakurtzen den generoa. Liburutegi nahiz liburu-denda gehienetan eskaintzen zaion apalategia txikia izan ohi da eta, askotan, benetan zokoratua. Orokorrean, nire ustez, jendeak errespetua dioen generoa da, hau da, askok bere burua poesia ulertzeko ezgaitzat hartzen du. Niri dagokidanez, aldiz, betidanik gustatu izan zaidan literatura generoa da, beraz, ezin dezaket ziurtasunez jakin zergatik izan daitekeen. Poesiak, gainontzeko generoekin alderatuz gero, irakurtzeko beste modu bat eskatzen du, gogoaren aldarte berezi bat, eleberriak kasu, eskatzen ez duena. Poesia irakurtzeak patxada eskatzen du, sintesitik osotasunera iristeko ibilbidea egitea, erritmoari arreta eskaintzea, sakontasunera heltzea, eta, sarritan, oinarriaren ezaguera izatea. Akaso badu zerikusirik irakasten denaren eta irakurtzen denaren arteko harremanak.

Horrez gain, etekin ekonomikoan oinarritzen den gizarteak ez dio mesederik egiten literaturari orokorrean, eta poesiari zehazki. Diru iturri emankorra ez den oro baztertzeko da eta, ondorioz, bestelako aisialdi mota eta jarduera batzuk sustatzen dira, kulturaren kalterako askotan.

“Poesia zu zara” esan zuen Becquerrek. “Pienso, luego escribo” liburuan baduzu poema bat poesiari eskainitakoa, argigarriagoa dena: “De fina poesía”. Zer da poesia? Zenbateraino ulertu behar da?

Aipatzen duzun Becquerren poema horretako azken bertso-lerroak inoiz ez nau guztiz asetu. Ase ezintasun horrek, beraz, eta poesia zer den arakatzeko nahiak, askotan, gai horren inguruan hausnartzera eramanez. Oraingoz erabat gogobeteko definiziorik ez dudala aurkitu esan dezaket, beti zerbaitek irrist egiten duelako ertzen batetik ez bada, bestetik. Dena den, nire lehen poema-liburuan irakur daitekeenez, poesiari buruzko poema bat ondu nuen, aipaturiko Becquerren poema hari tiraka edo, hobeto esanda, hura kolokan jartzeko asmoz. *De fina poesía* poeman, hortaz, *defina* eta *de fina*

*“Maiz, kanon zaharkitu,
baztertzaille eta,
testuinguruaren kokapenik gabea dugu
poesiaren erreferentzia gisa”*

hitz-jokoaz baliatuz, poesiaren balizko definizio bat eman nahi izan nuen, eta irakurleek esan izan didatenez, poemarik gustukoenen artean kokatzen dute.

Ulegarritasunaren gaia asko interesatzen zaidan kontua da. Sarritan poesia baztertzearren arrazoi nagusia ulertezintasuna edo are ulertezintasunaren ustea izan ohi da. Zaila eta ulergaitz ospea du. Ez nator bat nahitaez guztia ulertzeko beharrarekin. Poesia haratago doan zerbait da, edo honatago akaso, beste dimentsio bat hartzen duen generoa alegia; poema bat osotasunean ulertu ez arren, gozagarria izan daiteke, erritmoagatik, hitzengatik, hizkuntzarekin jolas egiteko moduagatik edo bakoitzari ekar dakizkiokeen oroipen edo eragin diezazkiokeen emozioengatik.

Poesiaren inguruko aurreiritzi asko daude, eta, askotan, aurreiritziekin gertatu ohi denez, okerrekoak. Gehienetan, eskolan irakasten den poesia dugu oinarri bakartzat, eta horrek eragin zuzena du poesiarekiko bakoitzak duen ikusmoldearekin, nola eta zer irakatsi ziguten hura dugulako erreferentzia bakartzat. Maiz, kanon zaharkitu, baztertzaille eta, testuinguruaren kokapenik gabea dugu poesiaren erreferentzia gisa. Poesiaren barruan, gai desberdin asko lantzen dira, gizakioi zuzenean eragiten diguten gaiak alegia. Hortaz, poesiak, irizpideak behar ditu aukeratzeko orduan. Norberaren uneko beharrak edo nahiak poesiaren hautaketa eta gozamena baldintza dezakete. Hori dela eta, garrantzitsua deritzot irakaskuntzan, hedabideetan, liburutegi eta liburu-dendatan poesiaren ezaguera areagotzea eta zabaltzea. Edertasuna egunero zabaldu behar delako.

Asier Serranori irakurria da poeta izateko lehenengo asko bizi behar dela; poetak begiratzen jakin behar duela, baina gizarte hau azkarregi

doala eta sarri bizitzari erreparatzeko astirik ere ez dugula hartzen. Bizitzari buruz idatzi zenuen zuk 'Pienso, luego escribo' poesia liburuan.

Ez nator bat. Nola neurtzen da asko bizitzea zenbat den? Zeinek erabakitzen du neurria? Askok dira literaturaren historian zehar gazte hil diren poetak. Poesia idazteko ez dut uste asko edo gutxi bizi behar denik, bizitako horrek norberarengan piztu duen gar hori adierazteko barneko bulkada sentitzea baizik. Hain justu ere, bizitzari erreparatzeko astirik ez dugun bizimodu azeleratu honetan, bizitzaren aurrean paratu eta ganoraz pentsatzea eragozten digun gurpil geldiezin honetan, inoiz baino gehiago behar dugu poesia, horrek geldialdia eskatzen duelako nahitaez, pentsatzeko denbora, sentitzekoa, hausnartzekoa, arretaz entzun eta begiratzekoa. Egungo gizartean, oro har, azalekoa gailentzen da, itxura, hau da, ikusten dena erakusteko beharra. Jakintza eta denbora erakutsi ezin direnez, alboratu egiten dira.

Nik neuk inspirazioa ez dut bilatzen. Egoera nahiz bizipen batek barnean eragin didan zerbaitek poema bat sortzeko bulkada ematen dit. Inspirazio iturri aberatsa da, nire aburuz, antzinako liburuek eskaintzen dutena.

Poesia niretzat bizitza ulertzeko eta adierazteko modu bat da, berezkoa bezain ezinbestekoa. Bizitzari zentzua ematen laguntzen diona, zentzurik baldin badu bederen, batzuetan galderen bitartez, eta besteetan erantzunen bidez; ziurtzat jotzen dugun hura zalantzan jartzeko balio dezake, baita, zalantza egiten dugun hura ziurtatzeko ere. Poesiak baretzen laguntzen du, baina baita askatzen ere, oihu egiten, abesten edo pairamena jasangarriagoa egiten.

"Poetandreak literatura greko-latindarrean. Antologia poetikoa" liburuan, Aintzinaro Klasikoko 24 emakumeren testuak itzuli zenituen. Gero, Saforen poesia euskaratu zenuen, eta orain, Egeriaren ibilerak euskaratu dituzu. Bistakoa da emakume haienganako konpromiso bat zugar. Zerk egiten ditu ezinbesteko obra hauek?

Konpromisoa, zorionez eta zoritxarrez, pertsonala izan da, hau da, nire irizpide eta ekimen pertsonaletik sortutako lanak izan dira hirurak. Argitaratuko ziren jakin gabe, itsu-



"Bokazioz eta atsegin handiz egiten dudana da, baina ez dut uste horrela izan beharko lukeenik"

itsuan, aurrera egin nuen ikerketa, itzulpen eta idazlan guztiarekin. Horregatik, oso esker oneko nago bai Balea Zuria bai Testu Zaharrak argialetxeek nire lana argitaratzeko egindako ahaleginagatik eta euskal literatura zabaltzeko emandako aukeragatik. Zoritxarrez diot, klasikoak itzultzeko, beste hizkuntzetatik euskaratzeko ez bezala, dirulaguntzarik ez dagoelako, eta, oraingoz behintzat, soilik lan pertsonalari esker egin behar delako. Ziurgabetasun horrek eta norbere bizia emateak itzultzaileari sakrifizio handia suposatzen dio. Niri dagokidanez, bokazioz eta atsegin handiz egiten dudana da, baina ez dut uste horrela izan beharko lukeenik. Ez dago, nik dakidanez bederen, horrelako itzulpenak babesten dituen euskal erakunderik. Gabezia azpimarragarria



"Konpromisoa, nire aldetik, hirukoitza izan da. Euskarari, emakume idazleei eta mundu klasikoari egin nahi izan diet ekarpena"

bezain adierazgarria iruditzen zait.

Konpromisoa, nire aldetik, hirukoitza izan da. Euskarari, emakume idazleei eta mundu klasikoari egin nahi izan diet ekarpena, eta hirurak lokarri berarekin lotu nahi izan ditut, hirurak bateratu, uztartu eta aberastu, bakoitza bere neurrian. Hein batean, alor bakoitzean egon daitezkeen hutsuneak estaltzen saiatu naiz.

Pentsa daiteke itzulitako lanaren jatorrizko lekuak eta beste ezagutzeko gogoia izan behar duela itzultzaileak. Zeren gogoz gelditu zara zu?

Irakurtzea nahiz itzultzea bidaiatzeko moduak dira, leku, garai eta pertsona desberdinak ezagutzera eramaten gaituena. Alderdi horretatik, arrazoi desberdinak medio, heldu ez zaizkigun poemak eta testuak irakurtzeko gogoz geratu

naiz, eta gustura asko jakingo nuke zergatik iritsi zaizkigun egoera horretan emakumeek idatzitako testuak, zatituta eta aipamen hutsen bitartez alegia. Safori dagokionez, adibidez, oraindik Egiptoko hondarretatik testu zatiak ateratzen ari dira, baita bildumazale pribatuen etxeetatik ere, beraz, apurka-apurka, zati horiek osatzeak zorioneko egiten gaitu.

Aintzinate klasikoko poeten lanak dira itzuli dituzunak, grezieraz eta latinez ondutakoak. Nola egin duzu hurbiltzea?

Urte askotako lana izan da. Ikerketa lan handia egin behar izan dut, ez baita erraza poetandre horiengana heltzea. Hizkuntza desberdinetako testuak irakurri behar izan ditut, alderatu, hautatu eta itzuli. Itzultzerako orduan, halaber, aipagarria da ez dagoela grekoa-euskara hiztegirik adibidez, beraz, horrek lana areagotzen du, atzeratzen, trakesten, zailtzen eta moteltzen. Poemetako hutsuneak interpretatzea ere ez da lan erraza izan, guregana heldu diren papiroen, pergaminoen nahiz, testu epigrafikoen kasuan, harrien egoera eskasa dela eta. Beraz, euskarri, hizkuntza eta hiztegi asko erabili behar izan ditut. Lan bibliografiko itzela eskatzen du horrelako itzulpen lan batek. Inbertsio handia alderdi askotatik. Horri poesia itzultzearen berezitasuna gehitu behar zaio, poema bakoitza garai, dialekto, prosodia eta neurtitz desberdinetan idatzita egoteaz gain. Itzultitako testuak garai arkaikotik erromatar inperioraren azken urte bitartekoak dira.

Klasikora jo zalea zara. Gaur egungoak ez zaitu asetzen ala guk uste baino modernoagoak ziren lehenago idazle haiek?

Betidanik erakarri izan nau mundu klasikoak, Greziak eta Erromak, baina baita antzinako Egiptok edo maien zibilizazioak ere, besteak beste. Gaur egungoa lehenagoaren emaitza eta isla dela egiaztatzeko balio du antzinaroak. Ez da komeni hari entzungor egitea, hark ematen duenak alde edo moldez aberastu egin baigaitzake.

Bai "Safo" liburuan, bai eta "Ibilbidea"-n ere, aurkezpen orri batzuk gehitu dituzu. Nor izan zen Safo eta nor Egeria? Zer da haietaz iritsi zaiguna?

Emakume biak ala biak aitzindariak izan ziren. Safo emakumezko poesiaren abiarazle gisa eta Egeria gerora hainbat idazlek imitatuko zuten bidaia-literaturaren aurrendaria. Hiru itzulpen lanetan, hitzaurrea eta garai zein idazle bakoitzaren testuinguruari buruzko azalpena idaztea erabaki nuen, garrantzizkoa iruditzen zaidalako irakurlea testuinguruan kokatzea, ulertzeko bideak zabaltzea eta albait gehien gozatzeko eta zukutzeko aukera ematea. Ezinbestekoa deritzot, bestalde, anakronismoetatik ihes egitea eta garaian garaiko poemak orduko ikusmoldearekin irakurtzea, eta ez egungora mugatzea. Horretarako biderik zuzenena ezagutza da, eta, beraz, azalpen horiek xede horrekin egindakoak izan dira.

Emakume haietaz dakiguna halabeharrari zor diogu batzuetan, eta gizakiaren (gizonezkoen esango nuke) hautabide baztertzailari beste askotan. Emakume haiek gaur egungo egiten ditu, hain justu ere, gu haien bezalakoak garelako, guk uste baino gehiago.

“Amatu” saiakera ere eman zenuen argitaraiaz. Hor ere badago bigarren mailakotzat hartu den gai bat bistartzeko ahalegina. Amatasunei buruz hitz egiteko behar halako bat suma daiteke azken boladan. Nor izan zenuen zuk buruan hori idazterakoan?

Amatasunaren inguruko nire kezken eta jakin-minaren ondorioz sortu zen, *Amatu*. Hasiera batean, niretzako ohar gisa ernaldu zen. Aurrera egin ahala, ordea, liburu forma eman nion neuk bizi, ikusi, entzun eta partekatutako bizipenekin. Amatasuna definitzeko beharretik askatzeko aldarria da, amatasunaren pluraltasuna, hautabidea bera eta amatzeak ustez dakarrenaren inguruko saiakera da. Emakumea noiz amaten den, amatzea bera zer den eta zergatik amaten garen, besteak beste, dira bertan landutako gaiak. Gizarteak amak nola ikusten eta tratatzen dituen kritikatzan dut, bestalde.

Irakaslea zara. Gazteez esaten da ez dutela lar irakurtzen. Zer estrategia baliatzen dituzu zuk haiek ere irakur zaletzeko? Zeren beharra sumatzen duzu?

Ez da galdera erraza erantzuteko. Iritzi

“Liburuak gertu ikustea, irakurtzea, liburutegiak eskura izatea. Helduok irakurtzen ikustea estrategia ona izan daiteke gazteak irakur zaletzeko”

artikulu bat edo beste ere idatzi izan dut gai horren inguruan, *Elinberri* aldizkari digitalean irakur daitezkeenak edo Azkoitiko *Maxixatzen* aldizkarian. Orokorrean eta motzean, jakin-nahi gabezia oso hedatua dagoela uste dut. Irudimenari ere tarte gutxi eskaintzen zaiola iruditzen zait. Estrategiak ikasleek beraiek bideratzen dituzte, zaila baita guztiekin modu berean jokatzeko eta guztiengandik emaitza bera lortzea. Horretarako, eredu izatea baino estrategia hobeagorik ez dagoela irizten diot. Liburuak gertu ikustea, ukitzea, irakurtzea, liburutegiak eskura izatea. Helduok irakurtzen ikustea estrategia ona izan daiteke.

Zer nolako irakurlea zara? Zer irakurtzea proposatuko zeniguke?

Asmo handiko irakurlea naizela esango nuke. Irakurtzeko denbora irakurri nahiko nukeena baino askoz urriago delako. Halere, liburu bat baino gehiago irakurtzen dut aldi berean. Zer irakurri aldatuz joaten da, uneko lanak baldintzatuta askotan. Dena den, interesa pizten didan edozer irakurtzen dut.

Poesia irakurtzea proposatuko nuke. Mesede egingo liguke poesia irakurtzeko atsedean pixka bat hartzeak, eta gizabanako sentikorragoak eta ulerberagoak izaten lagunduko liguke. Eta, besterik ezean, irakurtzea proposatuko nuke. Erritmo biziko bizimodu honetan, pentsatzea galarazten digun azelerazio honetan hain zuzen, irakurtzeko tarte hartzea gomendatuko nuke, hausnartzeko, pentsatzeko, gozatzeko, izateko, egoteko eta ikasteko; egoten ikasteko.

Zer beste duzu orain esku artean?

Beti izaten dut zerbait esku artean, eta gehiago buruan. Orain, ikerketa lan handia eskatzen didan proiektu batekin nabil buru-belarri.

Udaberriaren etorrera ospatu dute Motxaila Egunean



Dorleta Lazarobaster

Asteburu bete-betea izan dute Mendaron joan den hau: motxailen asteburua. Barikuan hasi zituzten ospakizunak, bertso-saio batekin. Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Alaia Martin eta Joanes Illarregi bertsolariak aritu ziren kantuan San Agustin kulturgunean, Ainhoa Urbieta gaitzaitzailearen esanetara. Aretoa bete egin zen eta giro ezin hobea jarri zuten bertsolariek. Seriotik eta umoretik, bietatik izan zuen saioak eta gogotik gozatu zuten entzuleek. Puntako bertsolariez gain, bertso eskolako ikasle gaztetxoek ere parte hartu zuten. Binaka edo hirunaka jarri eta bertso bana kantatu zieten bertsolariei, eta haiek erantzun. Oholtzan izan zen, baita ere, Amagoia Basurtok Motxaila egunerako propio sortutako figura.

Zapatu goizean, eta usadio bihurtu den eran, Gaztetxetik Aitzbeltz kobazulora arteko bidea egin zuten dozenaka lagunek. Han, Angel Mari Tobajas Morkaiko-Leizarpe espeleologia taldeko kideak kobazuloaren inguruko hainbat azalpen eman zizkien bildutakoei, eta kopetako-argiak jantzita, kobazuloan barrura ere egin zuten haren laguntzarekin. Ondoren, Gartxot Fidalgok Ismael Serranoren *Papa, cuéntame otra vez* kantuz Maialen Arzallusek euskaraz egindako bertsioa kantatu zuen gitarra hartuta, eta Frantziatik eta Galestik etorritako bi neskek, Marina Jubienek eta Jessica Evansek, Mikel Laboaren *Txoriak txori* kantatu zuten. Evansek, gainera, bakarka *Y Mynydd Hyd* abesti galestarra ere kantatu zuen. Gartxotek eman zion azkena musika emanaldiari, Silvio Rodriguezen 'Playa Girón' kantuarekin.



Maite Mendikute



Mokadutxoa ere egin zuten bertan, beherako bidea hartu aurretik. Gaztetxean bazkaria antolatua zuen Motxaila Elkarteak eta 60 bat lagun elkartu ziren bazkaritarako. Bazkalostean, berri, tabernaz tabernako ibilaldia hasi zuten Miren Gisasola musikari eibartarra lagun hartuta, eta hura bukatutakoan, gauean, Basapiztiak herriko taldeak kontzertua eman zuen Gaztetxean. Ez zen hor amaitu jaiak, baina. Beasaingo Muxutruk taldeak erromeria giroa jarri zuen gero eta luzatu zen gaua. Argazki gehiago eta bideoak: barren.eus

Udala sortu zenetik Mendaron administrari lanak bete dituen Joseba Etxeberriak erretiroa hartu du



Joseba Etxeberria Egiguren Mendaroko Udaleko administrariak erretiroa hartu zuen joan zen martxoaren 10ean, 63 urterekin. 23 urte zituela, 1983ko abenduan, sartu zen udaletxean lanean Joseba, Lourdes Etxeberria Altzibarrekin batera (2021eko maiatzean hartu zuen erretiroa), eta huts-hutsetik lan egitea egokitu zitzaizen biei. Dena zegoen egiteko Mendaron, Joseba Etxeberria eta Lourdes Etxeberria udaletxeko lantaldera batu zirenean. Izan ere, ordura arte Mendaroko zati bat Mutriku izan zen, eta bestea, Elgoibar, eta bi udal horietatik Mendarori buruzko dokumentazio guztia biltzea bera ez zuten lan makala izan. Erretiroa hartu berrian, Lourdes Etxeberriak kontatu

zuen bateratze horretan, zaborren eta ur horniduraren gaia kudeatzea izan zutela lehenengo eginkizunetako bat, Azpilgoetan ur zerbitzu onik ere ez zutelako [Gaur egun Kilimoiko urarekin hornitzen dira eskualdeko lau herri]. Dena egiteko zutela, 1983. urtean

1983an sortu zen Mendaro herria eta orduan udaletxean lanean hasi ziren bi langiletako bat da Joseba Etxeberria. 40 urtez izan da Udaleko administraria

urak hartu zuen Mendaro eta hondamendi hartatik burua altxatzen hasi zirenean, 1988an, uholdeak izan zituzten berriro. Garagartzako obrak, hiru eraikinetan banatua zegoen eskola bateratu eta egungo eraikina sortu, Mendaro Ospitaleko obrak, Erramone industrialdekoak, San Agustin kulturgunea... herri bat sortzen ikusi du Etxeberriak, udaletxetik, urte hauetan gutxieneko zerbitzu gehienak sortu dituztelako Mendaron.

Erretiroaz galdetuta, aitortu du nahiago duela oharkabean pasatu, baina lankideek ez dute ahazteko eta joan zen martxoaren 10ean egin zuten bazkariaren aurretik egin zuten talde-argazkia bidali dute BARRENERA. Taldeko argazkian aurreneko lerroan ageri da bera,

1989ko irailaren 1az geroztik lankide izan duen Jaione Zabalarren eta Iñaki Arregi alkatearen artean. Lehenengo lerroan, ezkerrengoa, ageri da Lourdes Etxeberria ere, Josebarekin batera udalean lanean hasi zena eta 37 urtez idazkari lanak bete zituena, harik eta 2021ean erretiroa hartu zuen arte. ■

MIKEL MARTINEZ

Aktorea

✍ Ainhoa Andonegi

'Ez dok ero' antzezlanaren taularatuko dute domekan San Agustin kulturgunean, 18:30ean, eta doan izango da. On Mikelote eta Pantxo aktore bikotearen amaiera iritsi da, baina Mikelotek ez du onartu nahi. Mikel Martinez aktoreak eman ditu obraren xehetasunak.

■ ■ Osasungarria da gure miseria handi eta txikiez barre egitea ■ ■

'Ez dok ero' antzezlanaren taularatuko duzue domekan. Zertan datza?

Urte asko daramatzagu Patxo Telleria eta biok elkarrekin lanean eta obra asko egin ditugu azken hamabost urteotan. Beti jolasten dugu euskararekin, eta geure buruari egiten diogu barre, euskaldunon buruari. Baina obra honetan Patxo eta Mikeli egiten diegu barre zuzen-zuzenean. Aktoreak gara, antzerkia euskaraz egiten dugu baina heldu zaigu erretiroa hartzeko unea, ikusleak aspertuta daudelako gurekin. Pantxok onartu du, baina Mikelotek ez du batere argi ikusten. Benetako On Kixote balitz moduan, salbatzailearen paperean sartuko da On Mikelote, eta bere lagun Pantxo leialarekin bidera irtengo dira berriz, euskal antzerkia eta euskara eraberritzera eta salbatzera. Bidai horretan porrot egingo dugu, baina oso modu barregarrian.

On Kixote eta Sancho Panzaren arteko harremanean oinarrituta daude zuen pertsonaiak?

Bai, hori da. *Ene Pantxo fidela, On Mikelote Arintzanokoa naiz, euskal antzerkiaren teatrero andantea...* Hori da testuaren zati bat. Gure bidaiaren joango gara Arantzazura, Donostiara danborrada ikustera, Guggenheimerara, Durangoko azokara... Gauza oso barregarriak gertatuko zaizkigu.

Umore berezia egiten duzuela esaten duzue. Zein ezaugarri ditu zuen umoreak?

Barre egiten dugu, baina oso modu ironikoan. Lotsa apur bat ere ematen dit esateak, baina umore inteligentea egiten dugu. Bikote ona osatzen dugu oholtzan, bioi gustatzen zaigu umore mota hau, baina Pantxok idazten ditu lanak eta meritu handiena berea da.

"Barre egin eta oso ondo pasatuko dute ikusleek, eta ikusten dutena ez dute berehalakoan ahaztuko"

Zuen buruari eta euskaldunoi barre egiten diezuela esan duzu. Euskaldunok ba al dakigu geure buruaz barre egiten?

Bai, hori frogatuta daukagu. Euskaldunok geure buruaz barre egiten ez jakitearen fama daukagu, baina, kontrako delako esango nuke. Agian ez litzaiguke gustatuko kanpoko batek gutaz barre egitea, baina bertakoek egitea oso ondo onartzen dugu. Osasungarria da gure miseria handi edo txikiez barre egitea, eta guk maitasun handiz egiten dugu.

Animatu mendaroarrak domekan antzerkira joatera.

Barre egin eta oso ondo pasatuko dute, eta ikusten dutena gainera, ez dute berehalakoan ahaztuko. Denbora pasatu arren, gogoratuko dute eta hori ez da gutxi! ■

16 ETA 24 URTE BITARTEKO GAZTEEK EGITEN DUTE GEHIEN EUSKARAZ EAE-N

✍️ Ainara Argoitia

Euskararen ezagutza, transmisioa, erabilera eta euskararen sustapenari buruzko jarrera aztertu dituzte Eusko Jaurlaritzak aurkeztu duen VII. Inkesta Soziolinguistikoa, eta lau aldagaietan egin da hobera, baina dena ez da ona. Izan ere, erabilera ez da handitu ezagutza bestean eta lekurik euskaldunenetan gero eta gaitasun txikiagoa dute euskaldunek euskaraz egiteko. Euskara gehien, hori bai, 16 eta 24 urte bitarteko gazteek egiten dute, eta euskaldunen erdiak baino gehiago eremu eraldunetan bizi dira.

Euskararen egoeraren argazkia erakutsi du VII. Inkesta Soziolinguistikoa Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. 1991tik egiten da inkesta soziolinguistikoa, bost urtean behin, eta 16 urtetik gorakoak hartzen dituzte kontuan (2.680.000 pertsona gutxi gorabehera). 2021ekoak dira orain aurkeztu dituzten datuak, baina inkestak azken 30 urteetan euskarak izan duen bilakaera ezagutzeko aukera ematen du.

EUSKARAREN EZAGUTZA

Euskaldunek gora egin dute hiru lurraldeetan eta hiru hiriburuetan. 2016ko datuekin alderatuta, 49.000 euskaldun gehiago daude, eta azken 30 urteko bilakaerari erreparatuz gero, euskaldunen ehunekoak 12 puntu egin du gora. Hau da, 1991n baino 261.999 euskaldun gehiago daude gaur: 680.629, biztanleen %36,2.

Hiru lurraldeak kontuan hartuta, alde handiak daude batetik bestera. Gipuzkoako biztanleriaren erdia baino gehiago euskalduna da (%51,8). Bizkaian, berriz, biztanleriaren herena da euskalduna (%30,6), eta Araban,



laurdena (%22,4). Euskal hiztunei erreparatuta, azpimarratzekoa da haien gaztetasuna. Izan ere, euskaldunen ehunekorik handiena 16 eta 24 urte bitarteko gazteak dira. Lautik hiru dira euskaldunak (%74,5); 1991n, berriz, %25 ziren, lautik bat. Sexuari dagokionez, euskaldunen ehunekoa 0,7 handiagoa da emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino: emakumezkoak dira %36,5, eta gizonezkoak %35,8.

Euskaldunak ugaritu ahala, euskaldunen ezaugarriak ere aldatu egin dira, baina, eta aldaketa horiek gizartean gertatzen ari diren aldaketa soziodemografikoekin dute lotura: gizartea gero eta zaharragoa da; atzerrian jaiotako gero eta jende gehiago dago; errazago mugitzen da jendea batetik bestera eta ondorioz hizkuntza paisaia aldatzen ari da; eta globalizazioak hizkuntza hegemonikoak indartu ditu. Ondorioz, gaur egun, euskaldunen %55 eremu eraldunetan bizi dira, eta beraz, euskaraz harremantzeko aukera gutxiago dituzte [1991n hamar euskaldunetik sei gune euskaldunetan edo nahiko euskaldunetan bizi ziren].

Euskaldunen ezaugarrietan gertatu den beste aldaketako bat euskaraz berba egiteko erraztasunarena da. Euskaldunak irabazi diren

Euskaldunak ugaritu ahala, gora egin du erdaraz euskaraz baino errazago hitz egiten duten euskaldunen kopuruak.

neurrian, gora egin du erdaraz berba egiteko erraztasun handiagoa duten euskaldunen kopuruak: euskaldunen %44,3k errazago egiten dute erdaraz. Erraztasunarenak lotura handia du umeak 3 urte bete arte gurasoengandik edo senitartekoengandik etxean jasotako hizkuntzarekin edo hizkuntzekin. Gaur egun, euskaldunen %48k dute lehen hizkuntza euskara. Euskaldunen %37k euskara etxetik kanpo jaso dute, eta gainerakoak jatorrizko elebidunak dira. Atzera egiten badugu, 1991n, %14 ziren euskaldun berriak, eta %79 euskara etxean jaso zutenak. Euskaldun berriak eta jatorrizko elebidunak, beraz, duela 30 urte baino bi aldiz gehiago dira gaur egun: euskaldun berrien hazkundea 22,7 puntukoa izan da, eta jatorrizko elebidunena 8,6 puntukoa.

TRANSMISIOA

Familia bidezko euskararen transmisioari dagokionez, guraso biak euskaldunak izanik, seme-alaben %85,5ek euskara bakarrik jaso dute etxean, %7,8k biak eta %6,7k ez dute euskararik jaso.

Hizkuntzaren transmisioan bi faktorek dute eragina bereziki: gurasoen hizkuntza-gaitasunak eta haien lehen hizkuntzak. Hori hala, guraso biak euskaldunak diren kasuan eta bien lehen hizkuntza euskara izan denean, seme-alaben %98k euskara bakarrik jaso dute eta %2k euskara eta erdara. Lehen hizkuntzatzat euskara batek bakarrik duenean, baina, %88k transmititu dute euskara eta %10ek bi hizkuntzak. Guraso biak euskaldunak izanda ere, bien lehen hizkuntza erdara denean, berriz: %35ek euskara transmititzen dute, %36k biak, eta %29k ez dute euskara transmititzen.

ERABILERA

Erraztasuna eta harreman-sarea dira euskararen erabilera gehien eragiten duten faktoreak, baina bi faktore horiek ez dute bermatzen euskararen erabilera, beste faktore batzuek ere eragiten dutelako, jarrerak eta interesak, esaterako. Hala ere, harreman-sarea bermatzen denean eta euskaraz berba egiteko erraztasuna nahikoa denean, euskararen erabilera gora egiten du.

Gaur, biztanleen %22k euskara erdera beste edo gehiago erabiltzen dute Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian. Azken 30 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilera 6,4 puntu egin du gora (ezagutzak %12, baina), eta gaur, 1991n baino 141.700 pertsona gehiagok erabiltzen dute euskara erdera beste edo gehiago. Erabilera hiru lurraldeetan egin du gora. Sexuari dagokionez, ez dago aparteko alderik emakumezkoen eta gizonezkoen artean, ez bada laneko erabilera. Hor bai, hor emakumeen datua 2,5 puntu handiagoa da. Euskara erabiltzen dutenen ehunekorik handiena, berriz, gazteek dute (%53,5) eta txikiak 65 urtetik gorakoek (%16,7); alderantziz zen orain 30 urte.

Erabilera eremu guztietan egin du gora, eta bereziki eremu formalean. Azken 30 urtean gorabehera txikiak izan arren, azken bost urteotan euskararen erabilera 2,7 puntu egin du gora. Eremu formal pribatuan, berriz, 1991tik, 11,4 puntu egin du gora lankideekin euskara erdera beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajeak.

Bainak ere badira, hala ere. Izan ere, euskaldunak ugaritu ahala, gora egin du erdaraz euskaraz baino errazago hitz egiten duten euskaldunen kopuruak. Gaur egun, euskaldunen %44,3k errazago aritzen dira erdaraz, euskaraz baino —1991tik sei puntu egin du gora—. Erabilera, gainera, eremu euskaldunenean egin du behera, 9,7 puntu. Beherakada hori azken biztanleen mugimenduen ondorio da nagusiki.

EUSKARAREN SUSTAPENARI BURUZKO JARRERA

Biztanleen %63,2k interes handia edo nahiko handia dute euskararekiko, %15,2k interes apur bat, eta %20,9k txikia edo hutsa. Galdekatutakoan hamarretik ia bederatzik erantzun dute etorkizunean bi hizkuntzak ezagutzea nahiko luketela.

Udalak eta Puntueus fundazioak laguntzak emango dituzte '.eus' domeinua eskuratzeko



Puntueus fundazioak eta Elgoibarko Udalak hitzarmena sinatu dute elkarte, establezimendu eta enpresen digitalizazioa sustatzeko eta ingurune digitalean euskararen presentzia areagotzeko. Hitzarmen horren baitan, Elgoibarko Udalak laguntzak emango ditu .eus domeinua erabili ahal izateko. Hala, herriko 100 enpresa, establezimendu edo entitatek dohainik erregistratu ahal izango dute .eus domeinua lehen urtean. Horretaz gain, Puntueus fundazioak,

urtebeterako, doako zerbitzaria izateko aukera eskainiko die domeinuaren parte izan nahi dutenei beraien proiektu digitala garatzeko. Interesatuak euskara@elgoibar.eus helbidera idatzi edo 943 744 366 telefonora deitu behar dute.

Gaur egun, 663 domeinu daude erregistratuta Elgoibarren, eta horietatik 117 dira .eus domeinua dutenak: %18. Horien artean daude besteak beste, Elgoibarko Izarra elkarte eta BARREN astekaria.

Inazio Bereziartua musika eskolako hiru ikasle hautatu dituzte Euskadiko Ikasleen Orkestrarako

Joan zen astean Euskadiko Ikasleen Orkestrarako hautaprobak egin zituzten, eta Inazio Bereziartua musika eskolako hiru ikaslek hartu zuten parte. Elaia Etxanizek saxofoiarekin hartu zuen parte, Danel Garaizabalek tronpetarekin eta Naia Olivaresek biolinarekin. Hirurak aukeratu zituzten orkestrarako, eta oso pozik izuli ziren etxera. Ikasle askok hartu zuten parte, tronpetaren kategorian esaterako, 40 hautagai zeudela azaldu dute arduradunek,

eta lau bakarrik aukeratu zituztela, horien artean, Garaizabal elgoibartarra. Ikasle hauek egonaldi bat egingo dute ekainaren 24tik uztailaren 1era Bilboko kontserbatorioan eta horren ostean hainbat kontzertu emango dituzte.


Bestalde, joan den larunbatean, Euskadiko Musikari Gazteen lehiaketa jokatu zuten Gasteizko kontserbatorioan eta B kategoriako bigarren saria irabazi zuen Elaia Etxaniz saxofoi-jotzaileak.



Elaia Etxaniz



Danel Garaizabal



Naia Olivares

Jose Luis Ibarzabal saritu du arte eszenikoen koordinakundeak



Jose Luis Ibarzabal Egibarrek 2023ko COFAE saria jaso du, arte eszenikoen azken koordinakundeak (COFAE) ematen duen saria, epaimahaiak aho batez horrela erabakita. Ibarzabalek 26 urtez (1996-2022) jardun zuen Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko teknikari lanean, zehazki, antzerkiaren arloan, eta sail horretan egindako lana aitortu diote orain sariarekin. Ibarzabalek "eremu publikotik arte eszenikoen kudeatzaile gisa egindako lana eta euskal sorkuntza artistikoen sustapenean izan duen inplikazioa" aitortu ditu epaimahaiak, baita arte eszenikoen azokei emandako "babesa eta haiek sustatzeko konpromisoa" ere. Aitortzak hunkitu egin du Ibarzabal eta "bihotz-bihotzez" eskerrak eman dizkie sariagatik.

Ibai Iztuetak emango du euskalduntasuna lantzeko bigarren saioa hilaren 30ean



Jon Sarasuak hasizuenatzoeuskalduntasunean sakontzeko eta elgoibartarrak norbanako eta komunitate moduan ahalduntzeko *Zergatik eta zertarako?* ekimena, eta datorren astean Ibai Iztuetak emango du bigarren eta azken hitzaldia. Giza eta gizarte zientzietan doktorea eta *Cultura vasca vs. Euskal kultura* liburuaren egilea da. Batzuek euskal kultura euskarazkoa baino ez dela diote, beste batzuek, aldiz, espainolez edo frantsesez egindakoa ere badela defendatzen dute. Horixe izango da hitzaldiaren muina. Datorren egunean izango da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 19:00etan. Elgoibarko Izarrak antolatu du ekimena, Elgoibarko Udalaren laguntzarekin.

Zabalik dago udalerrri euskaldunetako gazteen Salto! udalekuan izena emateko epea, hilaren 31 arte

Udalerrri euskaldunetako gazteentzako udalekuak, Salto! izenekoak, ekainaren 26tik uztailaren 4ra izango dira aurten, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Martxoaren 31ra arte eman daiteke izena, eta 2005 eta 2008. urteen artean jaiotako gazteek hartu dezakete parte. Izena emateko hiru modu daude: Online (<https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSdrSwaMy0ipI40J5LusaOEctAr--IEB74yYrPTw4ei7ASmAw/viewform>), 943 816 699 telefono zenbakira deituta edo posta elektronikoz arnasguneak@uema.eus helbidera idatzita.

Aurten ere ibiltaria izango da UEMAk, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, antolatutako ekimena. Orozkotik Dimarako bidea egingo dute udalekuan parte hartuko duten 120 lagunek. Tartean, Areatzan eta Otxandion geldialdiak egingo dituzte. Honakoa da programa: Ekainaren 26-28 (Orozko), ekainaren 28-30 (Areatza), ekainaren 30-2 (Otxandio) eta uztailaren 2-4 (Dima). Udalerrri euskaldunetako gazteak euskararen inguruan sentsibilizatzea, kontzientziaztea eta eragile aktibo bihurtzea da udalekuan helburua, UEMatik jakinarazi dutenez, eta prezioa 120 eurokoa izango da.

Elai Alai, Andra Mari eta Argia dantza taldeen emanaldia izango da bihar, Kalegoen Plazan

Haritz Euskal Dantzari Taldeak 50 urte beteko ditu aurtengo sanbartolomeetan, eta urteurrenaren harira urte osoko egitaraua prestatu dute. Hainbat ekintza egin dituzte dagoeneko, eta bihar izango dute hurrengoa. Dantza jaialdia antolatu dute, eta Euskal Herriko dantza talde ezagunak gonbidatu dituzte: Portugaleteko Elai Alai, Galdakaoko Andra Mari eta Donostiako Argia dantza taldeak, hain zuzen ere. "Dantza taldearen sorreratik harreman estua izan dugu hiru dantza taldeekin, eta ohorea eta plazera izango da urteurrena gurekin batera ospatzera etortzea", jakinarazi dute Haritz taldekoek. Kalegoen plazan izango da, 12:30ean (euria bada, Herriko Antzokian). Arratsalderako, berriz, Inguma dantza taldearekin kale-erromeria iragarri dute. 18:00etan hasiko da, King-Kong paretik.

Dantza jaialdia iragartzeko zabaldu duten kartelean *Herri bat dantzan* marrazki lehiaketako marrazki sarituetako bat erabili dute, Ibon Makazagarena, hain zuzen ere.



Ripoll eta Islabat taldeek kontzertua emango dute sotoan, hilaren 1ean

Asier Olabarrieta, Jesus Jimenez, Aitzol Mujika eta Andoni Alonsok osatzen dute Islabat. 2021ean sortu zuten taldea, eta 2022ko martxoan (*K)ito* izeneko lehenengo diskoa argitaratu zuten. Disko haren urteurrena ospatzeko kontzertua antolatu dute apirilaren 1erako, eta Madrilgo Ripoll taldea ere gonbidatu dute saiora. Horrez gain, Elgoibarko hainbat lagun musikari ere igoko dira oholtzara beraiekin batera, hala-nola, Nerea Gil eta Leonor Jimenez. 19:30ean izango da sotoan, eta sarrerak 5 euro balio ditu.



Txotxongilo emanaldia eguaztenean, Mendaron

Alaia galtzagorria txotxongilo emanaldia antolatu dute Mendaron, eguaztenerako. Euskal mitologian oinarritutako ipuinak kontatuko dituzte txotxongiloen laguntzaz, eta gure arbasoen mundura bidaiatu egiteko aukera emango digute, euskaraz. Deabrutxo batek Orozkoko kobako altxorra lapurtuko du, eta Zezengorri minotauroak Alaia galtzagorriari eskatuko dio hura berreskuratzeko laguntza. Ostomila txotxongilo taldeak aurkeztuko du ikuskizuna San Agustin aretoan, 17:30etik aurrera.



Ibon Baskaran snowboarderra Pirinio Garaiak departamenduko txapeldun

Amaitzear den denboraldia aparta izaten ari da Ibon Baskaran Beristain (Elgoibar, 2012) snowboarder gaztearentzako. Pirinioetan eta Alpeetan jokatu dituen hainbat proba irabazi ditu, modalitate desberdinetan gainera. Luz Ardideneko Ski Toy taldeko kidea da elgoibartarra, 2020tik, baina pandemia dela-eta iaz hasi zen lasterketetan lehiatzen. Frantzian lehiatzen da, Poussin izeneko kategorian. Lehen txapelketatik hasi zen nabarmentzen eta garaipenak lortzen. Iaz, La Mongien jokatu zuten Eslalon Erraldoiko goizeko eta arratsaldeko saioak irabazi zituen. Urtarrila bukaeran, Saint Laryn Bank Slalom lasterketa irabazi zuen bere kategorian, baita hurrengokoa ere. Hortaz, eman zuen maila onari esker, Frantziako Pirinioetako taldearen (Commissiion Snowboard Pyrenees) deia jaso zuen, eta honek Alpeetan lehiatzeko aukera eman dio aurten. Birritan egon da Alpeetan, Kid National Tour (France Snowboard Series) lasterketan parte hartzeko. Urtarrilean lehenik, eta joan den asteburuan egin du bigarren egonaldia. Puy Saint Vicenten (Frantziako Alpeak), urtarrilaren 27tik 29ra eta joan zen asteburuan, berriz, Serre Chevalier estazioan lehiatu zen. Alpeetan 15 urtera arteko lehiakideak eduki ditu 11 urteko elgoibartarrak, baina izugarri pozik itzuli da bizi eta ikasitakoekin. Momentuz 8. postuan dago bere kategorian eta Frantziako Federazioaren



deiaaren zain dago apirilean jokatu den azken probara joateko. Proba Chamonixen jokatu dute apirilaren hasieran. Nathalie Tristan da Baskaranen entrenatzailea, eta Alpeetako pisten ezaugarrietara primeran moldatu dela azaldu du, daukan adinerako heldutasuna erakutsi duelako lehiakide gazteenetarikoa izan arren eta izaera lehiakorra duelako.

Pirinioetan jokatu diren lasterketetan nagusi izan da bere kategorian. Slalom Cross proban gailendu zen otsailaren 19an, Les Petit Monstres lehiaketan, Guzeteko estazioan. Horrez gain, egun berean jokatu zuten freestyle edo estilo libreko proban bigarren postuan sailkatu zen. Otsailaren 25ean Vall Louroneko Eslalon Erraldoia irabazi zuen eta martxoaren 4an eta 5ean etorri zen denboraldiko lorpenik handiena, Luz Ardidenen, bi egunetako Boardercross probak irabazita, larunbatekoa zein igandekoa. Garaipen guzti horien ondorioz, martxoaren 4an, Hautes Pyrenees departamenduko txapelduna izendatu zuten.

747 antxitxikarik eman dute izena Jose Gurrutxaga krosean

Elgoibarko eta Mendaroko 747 antxitxikari gaztetxok eman dute izena Elgoibar Ikastolak antolatzen duen kirol ekitaldian parte hartzeko. Domekan, martxoaren 26an, jokatu dute probaren 28. ekitaldia, 10:30etik aurrera. Ohi duten moduan, adinka eta sexuka banatuko dituzte haurrak korrikarako, eta hamalau lasterketa izango dira guztira.



Xabier Loiolak irabazi du Hiru Txirlo Bola Txapelketako bigarren jardunaldia

Bolari elgoibartarrek denbora gutxi behar izan dute nabarmentzen hasteko. Gipuzkoako Hiru-txirlo Bola joko txapelketaren bigarren jardunaldian iritsi da lehen garaipena. Bergarako San Joxepe egoitzako bolatokian jokatu zuten, zapatuan txapelketako bigarren tiraldia, eta San Migel A taldeko Xabier Loiola gailendu zen nagusitasunez. Ia plenoa osatu zuen hiru tiradietan zortzi txirlo botata. San Joxepe taldeko Mikel Urkia sailkatu zen bigarren postuan, bost txirlo botata, eta Elgetako Sebas Aranzabal sailkatu zen hirugarren, bost txirlorekin. Guztira 62 bolarik hartu zuten parte tiraldian. Sailkapen nagusian lehen jardunaldiko irabazle Garikoitz Rodriguez (11 txirlo) dago lidertzan, Mikel Urkia (10 txirlo) bigarren postuan eta Gorka Etxaniz (8 txirlo) hirugarren postuan. Xabier Loiola da sailkapeneko lehen elgoibartarra, bosgarren postuan dago, 8 txirlorekin. Txapelketako hirugarren jardunaldia Azkoitian jokatu dute,



Floreagako bolatokian, martxoaren 25ean. Eta laugarren jardunaldia Idortobeko bolatokian izango da, apirilaren 1ean.

Mailaz igo da Pizzeria Salento taldea



Sanloko senior mailako talde nagusiak, gizonetzkoena zein emakumezkoena, ezinean dabilza denboraldi honetan, baina horrenbeste talde dituen kirol taldean berri onak ere badira. Senior gizonetzkoen Pizzeria Salento taldeak mailaz igotzea lortu du, liga amaitzeko jardunaldi baten faltan. Joan den zapatuan ziurtatu zuten igoera, Munttarpereri 31-21

irabazita Olaizagan jokatu zuten neurketan. Pizzeria Salentok orain arte jokaturako hamabost partidetatik 12 irabazi, bi berdindu eta bakarra galdu ditu Lurraldeko Bigarren Mailan. Orotara 26 puntu batu ditu, bigarren dagoen Donibane Bonantza taldeak baino bi puntu gehiago. Hala, etxean, zaleen aurrean, ospatu zuten igoera lortu izana.

Eneko Ortega UCI mailako Bernaudeau Klasikoan lehiatu da euskal selekzioarekin

Euskadiko junior mutilen selekzioarekin lehiatu da Eneko Ortega txirrindulari elgoibartarra Frantziako UCI mailako La Bernaudeau Klasikoan. Frantziako Vendee eskualdean jokatu zuten aurreko domekan 130 kilometroko ibilbidea duen lasterketa. Junior mailan diharduten txirrindulari frantziarrek osatu zuten tropela gehienbat, baina Europa osotik joandako talde indartsuetako txirrindulariak ere lehiatu ziren. Euskadiko junior mutilen selekzioak bost ordezkari izan zituen, eta Eneko Ortega izan zen horietako bat. Euskal txirrindulariak saiatu ziren arren, ez zuten indar nahikorik izan lasterketa buruan osatu zen hogeitxirrindulariko taldean sartzeko, eta garaipenerako borrokatik kanpo gelditu ziren. Titouan Fontaine gailendu zen, eta Unax Errasti Urteagak lortu zuen emaitzarik onena euskaldunen artean, 29. postuan sailkatuta. Mikel Alonso Oiarbide hautatzaileak balorazio oso positiboa egin du asteburukoaz: "Gure txirrindulariak 90. kilometrora arte leihakorrak izan daitezke,



baina pentsa hemen 140 kilometro egin zituzten neutralizatutako zatia kontuan hartuta eta 3h30 izan ziren. Gure txirrindulariak ohituta daude honen erdia egitera eta lasterketa luzeagoetan lehiakorrek izan daitezten lan egin beharko dugu. Hurrengo helburua estatuko txapelketak izango dira eta espero dut hori baino lehen beste lasterketa interesgarriren batean parte hartu ahal izatea."

Eneko Etxaniz eta Julen Dobarro podiumera igo dira Euskal Herriko Kopako lehen lasterketan

Bedian (Bizkaia) jokatu duten Kolazinoko Mendi Eguna mendilasterketarekin hasi da Euskal Mendizale Federazioak antolatzen duen 2023ko Euskal Herriko Kopa. Kategoria absolutuan Oihana Azkorbebeitia eta Aitor Zunzunegi izan ziren azkarrenak 24 kilometroko proba (1.700 metroko desnibel positiboarekin) osatzen. Junior, gazte eta kadete mailetako parte hartzaileak 11 kilometroko ibilbidean lehiatu ziren, eta gizonezkoen gazte mailan Eneko Etxaniz elgoibartarrak irabazi zuen lasterketa. Casa Astigarraga trail taldeko kideak nagusitasunez irabazi zuen proba. Etxanizen taldekide den



Julen Dobarro mendarorria bigarren postuan sailkatu zen gizonezkoen kadete mailan, Borja Utegoren atzetik. Alex Bergua jubentilekin lehiatu zen, eta lehen hamarren artean sailkatu zen. Aurten zortzi probek osatuko dute Euskal Herriko Kopa.

LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzen esperientzia handia daukat. Gauzez lan egiteko prest nago. Beharrezko titulua daukat. Nekazaritzan peoi moduan ere esperientzia handia.
602 834 107

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat, eta beharrezko titulazioa ere bai. Orduka.
643 071 900

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko garbiketa lanak ere egingo nituzke. Esperientzia daukat.
688 489 881

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka, gauzez edo asteburuetan. Esperientzia eta titulua.
632 229 972

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest.
643 505 662

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Etxeko garbiketa lanak ere egiten ditut.
643 505 827

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Titulua daukat. 602 490 595

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
685 724 861

Adinekoak zaintzeko edo beste edozein lan egiteko prest nago. Asteburuetan. Esperientzia daukat.
666 493 717

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Esperientzia handia daukat.
655 094 780

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Asteburuetan ere bai.
643 427 770

Adinekoak zaintzeko prest nago. Asteburuetan ere bai.
642 578 943

Adinekoak zaintzeko prest nago. Asteburuetan ere bai.
640 881 328

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut. 613 073 936

Eskaintzak

Kontabilitateko klase partikularrak emateko pertsona bat behar da, Erdi Mailako ziklo baterako.
645 727 320

ETXEBIZITZA


Etxebizitza alokatzen da Deban. Urte osoan zehar, hilabeteka edo asteka. Hiru logela, bi bainugela eta bi balkoi eder ditu. Etxea jantzita dago. Bista paregabeak. Igogailua zero kotatik. 657 795 876

OSPAKIZUNAK

1973koen kinto ospakizuna, ekainaren 10ean, Belaustegin. Autobusa 14:30ean Txankakuan. 90 euro sartu behar dira Laboral Kutxan, maiatzaren 31rako: ES90 3035 0007 27 0071143415.

 <p>administradores Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzko Eskola Adrestituzionala Larriño-Santesteban</p> <p>ROSA M^ª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure Komunitateko etxe baterako uraren pasabidea zabalduta eta ixten duen giltza hondatuta dago, eta ondorioz, ura galtzen du. Giltz hori portalean dago, kutxa baten barruan. Jakin nahi nuke nori dagokion hori konpontzea.</p> <p>Ur kontagailu partikularretik nabera doan eta elementu komunetatik pasatzen den hodia puskatzen bada, komunitateari dagokio konpontzea. Elementu komun izaera dute instalazioek eta ur-bidearen kanalizazioek, espazio pribatuan sartzen diren arte. Hodi eta kanalizazio horizontalak, elementu pribatu izaera hartzen dute, beraz, etxebizitzako perimetro pribatuan sartzen diren uean. Leku horretatik aurrera, beraz, etxe-jabe bakoitzari dagokio mantentze lanak egitea, eta ez komunitateari. Aldiz, hodia etxetik kanpora badago, gune amankomunean, komunitatearen ardura izango da.</p> <p>ONDORIOA: Berdin da uraren pasabidearen giltza non kokatuta dagoen. Giltza bera hondatu bada, eta hau etxebizitza pribatutik kanpora badago, komunitatearen ardura da konpontzea. Jabearen ardura izango da soilik etxe pribatuaren barruan badago.</p> <p>OSPEA GO-R AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	--



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Gure udaberriko larrosak dagoeneko 11 urte. Zorionak, **June**, etxeko guztion partez.



Zorionak, **Danel**, txapeldun! 9 urte dagoeneko! Muxu handi bat, etxeko partez.



Zorionak, **Martin**, martitzenean urteguna izan zenuelako. Ondo-ondo ospatu eta segi beti bezain jator. Lagunen partez, muxu bat.



Kantu berri bat sortzen zenbat ahalegin, zenbat buruhauste ideien atzetik, errimak lotu, zer esan nahi den jakin, eta esan nahi den hori nola adierazi. Eskerrik asko, **Joanes eta Amaia**, zarien modukuak izatiagaittik. Izan zorionsu!

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



BASO ZERBITZUAK

-  ITXITURAK
-  GARBIKETAK
-  LANDAKETA ILARAK EGIN
-  MENDIKO BELAR-SASTRAKAK KENDU

616 328 060
648 039 187
(Elmer Alaniz)
yuriscano@hotmail.com

ELGOIBAR


EKO-NOMIA.

ONGI-ZATEA.

INGURUMENA.

Hauek dira Gipuzkoarako eraikitzen ari garen etorkizunerako oinarriak. Gure ekonomia indartzeko, pertsonak babesteko eta gure ingurumena zaintzeko lanean ari gara. Gure etorkizuna orain hasten delako.

Etorkizuna Orain.
etorkizunaeraikiz.eus

Gipuzkoako Foru Aldundia   **ETORKIZUNA ORAIN**

24 BARIKUA

18:30 Etxebizitza sindikatuan parte hartzeko bilera irekia. Kultur Etxean. Antolatzailea: Deba Bailarako Etxebizitza Sindikatua.

25 ZAPATUA

Hileko azken zapatuko feria

09:00-14:00 Elgoibarko baserrietako produktuen salmenta, Kalebarren plazan.

11:00 Urajai elkarteak txosna zabalduko du.

12:00 Umeentzako tailerrak, Kalebarren plazan.

Eguerditik aurrera Ganadu erakusketa, Kalebarren plazan.

09:30 Txori habiak jartzeko eta hegaztiak ezagutzeko irteera. Morkaikok, Baso Biziak eta Atxutxiamaiak antolatuta. Maltzagarako bide hasieran. Izena eman behar da: *labur.eus//txoriatxori*

12:30 Dantza jaialdia: Haritz dantza taldearen 50. urteurrenaren barruan. Kalegoen plazan.

26 DOMEKA

10:30 Jose Gurrutxaga krosa. Elgoibar Ikastolak antolatuta, Kalegoen plazan.

18:30 Antzerkia: 'Ez dok ero'. Mendaroko San Agustin kulturgunean, doan.

27 ASTELEHENA

18:00 Hausnarketa saioa: 'Lan arriskuak genero ikuspegitik begiratuta'. Lilan.

19:30 Kontzertua: Inazio Bereziartua musika eskolako talde instrumentalak. Musika Eskolako auditoriumean.

28 MARTITZENA

18:00 Literatura tailerra: Luis Landeroren 'Una historia ridícula' liburua landuko dute. Haizeak antolatuta, Gotzon Garate Udal Liburutegian.

19:30 Kontzertua: Inazio Bereziartua musika eskolako talde instrumentalak. Musika Eskolako auditoriumean.

29 EGUAZTENA

17:30 Txotxongiloak. Mendaroko San Agustin aretoan.

19:00 Epeletan literatura tailerra: Santi Leoneren 'Liztor mutanteak' liburua landuko dute, Gotzon Garate Udal Liburutegian.

30 EGUENA


19:00 Hitzaldia: Ibai Iztuetak euskalduntasuna lantzeko saioa emango du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Elgoibarko Izarrak, Udalarekin elkarlanean antolatuta.

Zinea



'Los Fabelman'

24 barikua: 19:00
25 zapatua: 19:00 / 22:15
26 domeka: 19:00
27 astelehena: 21:00



'Momiak'

26 domeka: 16:30

Ordu aldaketa, domekan



Asteburu honetan udako ordu-tegian sartuko gara, eta ordua aldatu beharko da. Hortaz, domekan, martxoaren 26an, ordubetez aurreratu beharko da ordularia; 2:00etan 3:00ak izango dira.

Eta, Debabarrenean zer?

Pirritx, Porrotx eta Marimotots: 'Urteak bete, abenturak bizi'

Martxoak 24, barikua, Ermua Antzokian

Pailazoek 30 urteko ibilbidea ospatuko dute ikuskizun honetan. Bi saio emango dituzte, 17:00etan lehenengoa eta 19:00etan bigarrena.



2023ko botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00
 GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)
 OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

MARTXOA

- 24 BARIKUA
- 25 ZAPATUA
- 26 DOMEKA
- 27 ASTELEHENA
- 28 MARTITZENA
- 29 EGUAZTENA
- 30 EGUENA
- 31 BARIKUA

Egunez

- Garitaonandia
- Arriola
- Arriola
- Fernandez
- Yudego
- Oruesagasti
- Barrenetxea
- Ibañez

2023 urte guztian, gaeuz: 22:00-09:00
Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)
943 203 052

■ Fernandez:
 Herriko Enparantza,4
 Garagartza (Mendaro)
 943 756 142

■ Ibañez:
 Rekalde, 1 (Soraluze)
 943 751 638

■ Oruesagasti:
 Kalebarren, 9 (Soraluze)
 943 751 384

Oharra

Apirilaren 7an eta 14an ez dugu BARREN astekaria kaleratuko, martxoaren 31n kaleratuko dugu porrraldi aurreko azken aldizkaria. Aurretik zerbait argitaratzea nahi baduzue, martxoaren 29a (eguaztena) izango da azken eguna. 12:00ak baino lehen ekarri behar duzue BARRENEKO bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus helbidera idatzi edo 📞 688 655 658 mezua bidali.

Zabaldu atea BARREN astekariari, eta egin zaitetz harpidedun!

Aspaldi bazabiltza BARREN etxeko buzoian jaso nahian edo jaso nahi lukeen beste norbait ezagutzen baldin baduzu, oraintxe duzu aukera. Deitu, idatzi edo etorri bulegora.



943 744 112
barren@elgoibarkoizarra.eus
 Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.





Nagore Cancio del Pino





2023-24 Batxilergoko aurrematrikulazio epea:
Martxoaren 27tik apirilaren 21era arte (on-line zein ikastetxean)

BATXILERGOA



GREEN MIO N GIDA



ELEKTRIZITATEA

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Andres: 630 957 345
677 512 462

Pedro Migel Uruzuno, 14 beheha
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: **943 200 697**
ego.luz@hotmail.com

ITURGINTZA

SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi Kalea, 17, beheha
Elgoibar

943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

AROZTEGIA

iraolagoitia

aroztegia - altzariak - eke-aldaketak

Kurutz-gain Industrialdea, 9
20850 Mendara

943 756 112
636 497 485

www.iraolagoitia.com

LEIHOAK

LODOSO
LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223
lodosofj@gmail.com

943 743 490

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA

Pedro Migel Uruzuno, 8
943 740 512
Fax: 943 743 565
bienda@pagoagasasa.com
www.pagoagasasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - ELGOIBAR
zafer@pagoagasasa.com
943 740 279

AROZTEGIA

IMAR
AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 beheha

943 531 471
609 054 978

carpinterialmar@hotmail.com

f

PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com



AROZTEGIA

BIENA, S.L.
AROZTEGIA

Emuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

f

Gidan agertzearen onurak!

23,10€ hilan

12 aldiz urtean

4,885 ale astero

22 Eren truke, hilero, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu BARREN astekarian.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakuslelho ikusiena.

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron DOAN.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturegunea, 3. 3. ezk
20870 ELGOIBAR